



AGINDUA, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITAKO SAILBURUARENA; HONEN BIDEZ, ALDEZ AURREKO ONESPENA EMATEN ZAIO KOMUNITATEKO KONPOSTAJE-INSTALAZIO ETA -JARDUEREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA BALDINTZA TEKNIKOAK EZARTZEN DITUEN AGINDU PROIEKTUARI.

ORDEN DEL CONSEJERO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA POR LA QUE SE ACUERDA LA APROBACIÓN PREVIA DEL PROYECTO DE ORDEN POR LA QUE SE ESTABLECE EL RÉGIMEN JURÍDICO Y LAS CONDICIONES TÉCNICAS DE LAS INSTALACIONES Y ACTIVIDADES DE COMPOSTAJE DE COMUNITARIO.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko apirilaren 10eko aginduaren bidez, komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezarriko duen arau orokor baten izapideari hasiera ematea erabaki zen.

Mediante Orden de 10 de abril de 2018 del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda se acordó iniciar el procedimiento para la elaboración de una disposición de carácter general con el objeto de establecer el régimen jurídico y las condiciones técnicas de las instalaciones y actividades del compostaje de cercanía.

Prozedura abian jarri ondoren, Agindu-proiektua idatzi da, Aginduaren eranskinean ezarritako irizpideei jarraituz.

Tras el inicio del procedimiento, se ha procedido a la elaboración del texto normativo, de conformidad con los criterios recogidos en el Anexo de la Orden de inicio.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legea betez, eta, 2016ko abenduaren 15eko Aginduaren planteamenduekin bat datorren aginduaren aurreproiektu egituratua dagoeneko egin denez, aipatutako Agindua onartzeko izapideekin jarraitu behar da.

En cumplimiento de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre y habiéndose elaborado ya el proyecto de Orden estructurado y acorde con los planteamientos de la Orden de 10 de abril de 2018, procede continuar con los trámites oportunos para aprobar la Orden de referencia.

Hala, 8/2003 Legearen 7.1 artikulua araberan, hau

Así, de conformidad con el art. 7.1 de la Ley 8/2003

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Lehena.- Komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezarriko dituen Agindu proiektuari behin behineko onespena ematea, II eranskinean jasotako edukiarekin.

Primero.- Aprobar previamente el Proyecto de Orden por la que se establece el régimen jurídico y las condiciones técnicas de las instalaciones y actividades del compostaje de cercanía, con el contenido que se recoge en el Anexo I.

Bigarrena.- Prozedurarekin aurrera

Segundo.- Continúese con el

egitea, aurreikusitako izapideak eginez eta nahitaezko txostenak eskatuz.

procedimiento, realizando los trámites previstos y recabando los informes preceptivos.

Izapide horiek egitean eta Hasiera emateko Aginduan ezartzen denaren aurka, ez dira egin behar Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen 56. artikulua Eusko Legebiltzarrari komunikazioa bidaltzeko aurreikusitako izapideak. Izan ere, izapidetzen ari garen araua Agindua da; beraz, ez da sartzen artikulua horren aplikazio-eremuan.

En la realización de dichos trámites y contrariamente a lo establecido en la Orden de inicio, no deberán realizarse los trámites de comunicación al Parlamento previstos en el artículo 56 de la Ley 7/1981, de Gobierno, dado que la disposición reglamentaria objeto de tramitación tiene rango de Orden y no entra por ello en el ámbito de aplicación del referido precepto.

Vitoria-Gasteizen,

IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUA
EL CONSEJERO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Elektronikoki sinatua



AGINDU-PROIEKTUA, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ KOMUNITATEKO KONPOSTAJE-INSTALAZIO ETA - JARDUEREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA BALDINTZA TEKNIKOAK EZARTZEN DIREN.

Biohondakinek Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako etxeko hondakinen frakzio oso handia hartzen dute. Bihondakintzat jotzen dira etxeetan etxeko jardueren ondorioz sortutako hondakinak baita zerbitzu zein industrietan antzeko jardueren ondorioz sortutako hondakinak ere, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean ezarritakoaren arabera. Etxeko hondakinen frakzio hori % 32,53koa da. Hala, 2016. urtean, guztira, 254.001 t jaso ziren.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2008ko azaroaren 19an onartu zuten 2008/98/CE zuzentarauak, hondakinei buruzkoak, estatu kideei eskatu zien behar ziren neurriak har zitzatela biohondakinak gaika biltzeko, hondakin horien konpostajea eta digestioa egiteko xedearekin.

Uztailaren 28ko 22/2011 Legeak (hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoak) 24. artikuluan Europako erkidegoaren agindua garatu zuen, eta aipamen berezia egiten dio, hondakinak kudeatzeko plan eta programen bidez, etxeko eta komunitateko konpostajea sustatzeko beharrari.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) 2020rako Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Planean xede espezifikoa bat ezarri zen autokonpostajea landa-eremuetan eta komunitate-konpostajea dentsitate baxuko bizileku-eremuetan sustatzeko, horrelako ekimenen jarduketara orokortuak dagozkien Foru Planetan txerta daitezela programatuz.

Etxeko eta komunitateko konpostajea Europar Batasuneko estatu kideetan sustatzen diren jarduerak dira, baita Europar Batasuneko biohondakinen kudeaketari buruzko Liburu Berdea bezalako erkidegoko dokumentu ofizialetan ere. Halere, kontzeptu horiek gero eta gehiago erabiltzen badira ere, ez daukate definizio positibaturik testu arauemailetan, nahiz eta nolabaiteko

PROYECTO DE ORDEN DEL CONSEJERO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA, POR LA QUE SE ESTABLECE EL RÉGIMEN JURÍDICO Y LAS CONDICIONES TÉCNICAS DE LAS INSTALACIONES Y ACTIVIDADES DE COMPOSTAJE DE COMUNITARIO.

Los biorresiduos suponen una fracción muy importante de los residuos domésticos generados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, entendiéndose por tales los residuos generados en los hogares como consecuencia de las actividades domésticas así como los similares a los anteriores generados en servicios e industrias, de conformidad a lo dispuesto en la Ley 22/2011 de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados. Dicha fracción alcanza el 32,53% de los residuos domésticos, siendo un total de 254.001 t para el año 2016.

La Directiva 2008/98/CE del Parlamento Europeo y del Consejo de 19 de noviembre de 2008, sobre los residuos, instó a los Estados Miembros a adoptar las medidas necesarias para impulsar la recogida separada de biorresiduos con vistas al compostaje y la gestión de los mismos.

El artículo 24 de la Ley 22/2011 de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados, desarrolló el mandato comunitario estableciendo una específica mención a la necesidad de fomentar el compostaje doméstico y comunitario a través de los planes y programas de gestión de residuos.

En este sentido, el Plan de Prevención y Gestión de Residuos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV) 2020 incorporó como objetivo específico el impulso del autocompostaje en zonas rurales y del compostaje comunitario en zonas residenciales de baja densidad, programando la inclusión en los respectivos Planes Forales de actuaciones generalizadas de este tipo de iniciativas.

El compostaje doméstico y comunitario son actividades que se promueven en los Estados Miembros de la Unión Europea y en documentos comunitarios oficiales como el Libro Verde sobre la gestión de los biorresiduos en la Unión Europea. Sin embargo, siendo creciente la utilización de estos conceptos, no cuentan con una definición positivada en los textos normativos a pesar de que existe cierto



adostasun tazitua dagoen modalitate horietako bakoitzari buruz ulertu behar denaren inguruan. Egoera hori dela eta, kontzeptu horien lege-definizioa eta araubide juridikoa behar dira, xedapen arauemaile honetan egin dena, hain zuzen.

Europako Batzordeak prebentzio-kontzeptuaren interpretazio ireki bat onartu du, eta Hondakinen Prebentziorako Programak Prestatzeko Gidan hau adierazi du: «etxeko konpostajea (home composting) prebentziotzat jo daiteke zentzu zabalean» (2012ko urria).

Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera horiek de facto ezarri eta garatzen ziren behar beste argitu gabeko araubide juridikorik gabe, hau da, zentzu zabalean hondakinak prebenitzeko horrelako jarduketan eta, beste baimen batzuen artean, hondakinak kudeatzeko baimena behar duten hondakin-tratamenduen bestelako jardueren artean mugak ezartzen dituen araubide juridikorik gabe.

Zenbait estatu kidek mota honetako konpostajea prebentzio-plan eta -estrategietan sartzen dituzte, nahiz eta berariaz onartzen duten neurri horiek, zentzu hertsian, ez dakartela prebentziorik.

Estatuan Hondakinen Plan Nazional Integralean agertzen da eta bertan prebentzio-neurri gisa hauxe jaso da: «etxeko eta komunitateko programekin jarraitu behar da eta horiek zabaldu behar dira». Era berean, Hondakinak Prebenitzeko Estatuko Programan hau adierazi da, prebentzio-neurri gisa aipatuz Etxeko Jatorria duten Hiri Hondakinen Programan: «etxeko eta komunitateko konpostaje-programekin jarraitu behar da eta horiek zabaldu behar dira».

Euskal Autonomia Erkidegoan, ildo horretako lehen pauso bat izan zen Ingurumen sailburuordearen 2015eko urriaren 19ko 1/2015 Instrukzioa onartzea, EAEko lurralde-eremuan komunitateko konpostaje-instalazioek bete behar dituzten administrazio-prozedurei buruzkoa. Dokumentu horretan argitu zen komunitateko konpostajea, zentzu zabalean, hondakinak tratatzeko eragiketa bat izan gabe, hondakinak prebenitzeko jarduketa bat dela, betiere instalazioek konpostaje zentralizatuko instalazioetatik bereizten dituzten baldintza batzuk betetzen badituzte.

consenso tácito en lo que debe entenderse por cada una de estas modalidades. Dicha situación hace necesaria la definición legal y el perfilado del régimen jurídico de estos conceptos acometidos en la presente disposición normativa.

La Comisión Europea ha llegado a aceptar una interpretación abierta del concepto de prevención, afirmando en la Guía para la Preparación de Programas de Prevención de Residuos que "el compostaje de doméstico (home composting) podría considerarse como prevención en sentido amplio" (octubre de 2012).

En la Comunidad Autónoma del País Vasco dichas actividades venían implantándose y desarrollándose de facto sin un régimen jurídico suficientemente clarificado que estableciera límites entre este tipo de actuaciones de prevención de residuos en sentido amplio y aquellas otras actividades de tratamiento de residuos sometidas a autorización de gestión de residuos, entre otros permisos.

Diversos Estados Miembros incluyen este tipo de compostaje dentro de sus planes y estrategias de prevención, aun admitiendo expresamente que estas medidas no suponen una prevención en sentido estricto.

A nivel estatal aparece recogido en el Plan Nacional Integral de Residuos, en el que se incluye como medida de prevención la continuación y ampliación de los programas de compostaje doméstico y comunitario". De igual manera se refleja también en el Programa Estatal de Prevención de Residuos, citándose como medida de prevención en el Programa de Residuos Urbanos de Origen Domiciliario: "la continuación y ampliación de los programas de compostaje doméstico y comunitario".

En la Comunidad Autónoma del País Vasco, un primer paso en esta misma línea consistió en la aprobación de la Instrucción 1/2015, de 19 de octubre de 2015, del Viceconsejero de Medio Ambiente, relativa a los procedimientos administrativos que deben observar las instalaciones de compostaje comunitario en el ámbito territorial de la CAPV. En aquél documento se clarificó que el compostaje comunitario es una actuación de prevención de residuos en sentido amplio, carente de la condición de operación de tratamiento de residuos, siempre que las instalaciones cumplan determinados requisitos que los diferencian de las instalaciones de compostaje centralizado.

Agindu honen xede nagusia da ingurumena eta pertsonen osasuna babestea. Horretarako, etxeko biohondakinak konpostatzen diren instalazio eta jarduerak bete behar dituzten baldintzak ezartzen dira, horiek hondakinak prebenitzeko jardueratzat hartu ahal izateko, zentzu zabalean. Hori dela eta, baldintzak ezarri dira alderdi hauen inguruan: komunitateko konpostajearen xede izan daitezkeen hondakinak, instalazioen kokapena eta ezaugarriak, prozesuaren kontrola eta lortzen den konpostaren kalitate-kontrolak. Era berean, instalazioek titular bat eta teknikari arduradun bat izan behar dituzte, eta bien eginkizunak ere zehaztu egin dira.

Lortzen den konpostaren balizko erabilerei dagokienez, Agindu honek materialari emango zaion funtzioaren arabera aplikatu daitezkeen araudira igortzen du, eta ez badago araudi espezifikorik, nabarmentzen du lortutako konposta erabiltzaileek erabil dezaketela beren lursailetan, eta elikagaitatearekin erlazioatutako erabilerak saihesteko zuhurtzia izan behar dela.

Bestalde, horrelako instalazioek molestiak sor ditzakete, eta, beraz, otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean (Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzkoa) ezarritakoaren arabera sailkatutako jardueratzat jotzen dira. Halere, duten inpaktua garrantzi gutxikoa denez, dagokien administrazioaren esku-hartzearen araubidea aurretiazko jakinarazpena behar duten jarduerarena izan daiteke, Lege horretako II.B eranskinean aurreikusia.

Azkenik, adierazi behar da ikastetxeetan sortzen diren eta etxeetakoekin parekatu daitezkeen hondakinak ere konpostatu daitezkeela sortzen diren tokian xedapen gehigarri bakarrean aurreikusitakoa betez.

Horrela, Jaurlaritzaren legeri buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuak ematen didaten eskumena betez, honako hau

La finalidad última de esta Orden no es otra que la protección del medio ambiente y de la salud de las personas. A tal efecto, se establecen las condiciones que deben reunir las instalaciones y actividades donde se composten los biorresiduos de origen doméstico para poder ser consideradas actividades de prevención de residuos en sentido amplio, fijándose requisitos relativos a los residuos que pueden ser objeto de compostaje comunitario, la ubicación y las características de las instalaciones, el control del proceso y los controles de calidad del compost resultante. Asimismo, se impone la necesidad de que las instalaciones dispongan de una persona titular y una persona responsable técnica, cuyas funciones quedan también especificadas.

Respecto a los posibles usos del compost resultante, esta Orden se remite a la normativa que resulte aplicable en función del uso al que se pretenda destinar el material, y en defecto de reglamentación específica, pone de relieve la posibilidad de utilizar el compost obtenido entre las personas usuarias para su utilización en sus propios terrenos, con la cautela de evitar los usos relacionados con la cadena alimentaria.

Por otro lado, este tipo de instalaciones tienen cierto potencial de generar molestias, y por lo tanto tienen la consideración de actividades clasificadas de conformidad a lo dispuesto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco. Sin embargo, su impacto poco relevante permite que su régimen de intervención administrativa sea el de comunicación previa de actividad, previsto en el anexo II.B de dicha Ley.

Finalmente, cabe señalar que los residuos asimilables a los domésticos generados en centros educativos también pueden ser compostados en el lugar en el que se producen cumpliendo lo previsto en la Disposición Adicional Única.

Así, en el ejercicio de la competencia que me atribuye el artículo 26.4 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, así como el Decreto 77/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda.

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

1. artikulua. - Xedea.

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzea, ingurumena eta pertsonen osasuna babesteko helburuarekin.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Agindu honetako xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoan komunitate-konpostajerako diren instalazio eta jardueri, publiko zein pribatuei, aplikatuko zaizkie, Agindu honetan ezarritakoa betez, baldin ez badaude hondakinak tratatzeko eragiketen baimen-araubidearen mende, uztailaren 28ko 22/2011 Legeko (hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa) 27. artikuluan aurreikusi bezala.

3. artikulua. Definizioak.

Agindu honen ondorioetarako, kontzeptu hauek definitu behar dira:

- a) Biohondakin: lorategietako eta parkeetako hondakin biodegradagarriak; etxeetatik, jatetxeetatik, sukaldaritza kolektiboko zerbitzuetatik eta txikizkako establezimenduetatik ateratako elikagai-eta sukalde-hondakinak eta elikagaien prozesatu-instalazioetatik ateratako hondakinak.
- b) Konpost: gaika bildutako hondakin biodegradagarrien tratamendu biologiko aerobio eta termofilatik lortutako medeagarri organikoa.
- c) Konpostaje: material biodegradagarri organikoen transformazio biologiko aerobiko eta termofiloaren prozesu kontrolatua. Horren bidez, ongarri edo emendagarri organikoak eta/edo produktu organiko mota batzuk lortzen dira.
- d) Komunitateko konpostaje: hainbat norbanakok edo familiak sortutako biohondakinen tratamendua. Horretarako jarritako instalazio komunitateko batean biohondakinak batera konpostatzen dituzte norbanako edo familiek.
- e) Egituratzaille: konpostaje-prozesuari aplikatzen zaion landare-materiala karbonoa emateko, aireztatzea errazteko eta hezetasuna murrizteko.
- f) Komunitateko konpostaje-instalazio: konpostaje-prozesua osorik (deskonposizio- eta heltze-faseak barne,

Artículo 1.- Objeto.

El objeto de la presente Orden es establecer el régimen jurídico y las condiciones técnicas de las instalaciones y actividades de compostaje comunitario en la Comunidad Autónoma del País Vasco con el fin último de proteger el medio ambiente y la salud de las personas.

Artículo 2.- Ámbito de aplicación.

Las disposiciones contenidas en la presente Orden serán de aplicación en la Comunidad Autónoma del País Vasco a las instalaciones y actividades, públicas y privadas, destinadas al compostaje comunitario que, cumpliendo lo dispuesto en la presente Orden, no estén sometidas al régimen de autorización de las operaciones de tratamiento de residuos, previsto en el artículo 27 de la Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados.

Artículo 3.- Definiciones.

A efectos de la presente Orden se definen los siguientes conceptos:

- a) Biorresiduo: residuo biodegradable de jardines y parques, residuos alimenticios y/o de cocina procedentes de hogares, restaurantes, servicios de restauración colectiva y establecimientos de venta al por menor; así como, residuos procedentes de plantas de procesamiento de alimentos.
- b) Compost: enmienda orgánica obtenida a partir del tratamiento biológico aerobio y termófilo de residuos biodegradables recogidos separadamente.
- c) Compostaje: proceso controlado de transformación biológica aeróbica y termófila de materiales orgánicos biodegradables que da lugar a abonos o enmiendas orgánicas y/o a algunos tipos de productos orgánicos.
- d) Compostaje comunitario: el tratamiento de los propios biorresiduos generados por varios individuos o familias que los compostan conjuntamente en una instalación común dispuesta al efecto.
- e) Estructurante: material vegetal aplicado al proceso de compostaje para aportar carbono, facilitar la aireación y reducir la humedad.
- f) Instalación de compostaje comunitario: equipamiento o conjunto de equipamientos necesarios para desarrollar el proceso



baita material egituratzailea biltegitzea eta konposta lortzea ere) egiteko behar den eta leku jakin batean dagoen ekipamendua.

g) Lote: Komunitateko edo etxeke konpostaje-instalazio bateko konpost heldua. Konpost horren prozesuan Agindu honetako 8. artikuluan ezarritako baldintzak bete dira.

Lote bat konpost helduaren hainbat azpilotek osa dezakete, baldin eta bi baldintza hauek betetzen badira:

- Instalazio bakarrekoak izatea.
- Dagozkien dezagazio-faseak era bereizi eta kontrolatua amaituta izatea, gutxienez, 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

h) Azpilote: lote bat eratzen duten partidetak bakoitza, betiere horiek konpost heldutzat jotzen badira 8. artikuluaaren arabera.

i) Komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueretako erabiltzaile: hondakin biodegradagarriak Agindu honetan zehaztutako komunitateko konpostaje-instalazioetan uzten dituzten pertsona fisikoak.

4. artikulua- Komunitateko konpostajea hondakinak prebenitzeko eragiketa gisa.

1.- Zentzu zabalean, komunitateko konpostaje-instalazio eta -jarduerak hondakinen prebentzio-jardueratzat joko dira, baldin eta Agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2.- Instalazio eta jarduera horiei ez zaie aplikatuko hondakinak tratatzeko eragiketen baimen-araubidea, uztaillaren 28ko 22/2011 Legearen (hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa) 27. artikuluan aurreikusia dagoena.

3.- Baldintza horiek betetzen dituzten instalazio eta jarduerak aurretiazko jakinarazpena behar duten jardueren araubidearen mendeko jarduera sailkatutzat joko dira, otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren (Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzkoa) 55. artikuluaaren eta hurrengo ondoietarako. Aipatutako Legearen II B eranskineko 14. apartatuan kokatuko lirateke.

completo de compostaje, incluyendo las fases de descomposición y maduración, así como el almacenamiento de material estructurante y el compost resultante, dispuestos en un mismo emplazamiento.

g) Lote: el compost maduro procedente de una instalación de compostaje comunitario o doméstico, en cuyo proceso se han cumplido las condiciones establecidas en el artículo 8 de la presente Orden.

Un lote podrá estar compuesto por distintos sublotes de compost maduro siempre que se cumplan las dos condiciones siguientes:

- Que procedan de una única instalación.
- Que hayan terminado sus respectivas fases de degradación de manera separada y controlada, al menos, según lo dispuesto en el citado artículo 8.

h) Sublote: cada una de las partidas en las que está constituido un lote, siempre y cuando éstas hayan alcanzado la consideración de compost maduro en base al artículo 8.

i) Personas usuarias de las instalaciones y actividades de compostaje comunitario: personas físicas que depositan sus residuos biodegradables en las instalaciones de compostaje comunitario definidas en la presente Orden.

Artículo 4.- Compostaje comunitario como operación de prevención de residuos.

1.- Las instalaciones y actividades de compostaje comunitario serán consideradas como actividades de prevención de residuos en sentido amplio siempre que cumplan las condiciones establecidas en la presente Orden.

2.- Dichas instalaciones y actividades no estarán sometidas al régimen de autorización de las operaciones de tratamiento de residuos, previsto en el artículo 27 de la Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados.

3.- Las instalaciones y actividades que satisfagan dichos requisitos serán consideradas actividades clasificadas sometidas al régimen de comunicación previa de actividad a los efectos de los artículos 55 y siguientes de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, encuadrándose en el apartado 14 del anexo II B de la citada Ley.



5. artikulua- Komunitateko konpostaje-instalazioen kokapena.

Komunitateko konpostaje-instalazioak ipiniko diren tokiko udalek ezartzen dituzten arauen arabera kokatuko dira, pertsoneri molestiak sortzea saihestearren eta, nolana ere, errespetatu egingo dira jabari publikoko guneak eta legez ezarritako zortasunak, baita unean-unean indarrean egon daitezkeen bestelako arauetatik eratorritako beste edozein muga ere.

6. artikulua- Komunitateko konpostaje-instalazioen ezaugarriak.

1.- Komunitateko konpostaje-instalazioek ez dituzte izango 10 metro kubiko baino gehiago, bolumenaren aldetik, konpostaje-prozesua egiteko.

2.- Bolumena neurtzeko, instalazioa osatzen duten ekipamendu guztiak izango dira kontuan, eta alde batera utziko dira material egituratzailea jasotzeko eta konposta biltegitzeko ekipamenduak.

3.-Hainbat azpilote izanez gero, azpiloteak beren artean ez nahasteko eran diseinatu behar da instalazioa.

7. artikulua- Komunitateko konpostaje-instalazioetan onar daitezkeen hondakinak.

Komunitateko konpostaje-instalazioetan soilik biohondakin hauek konpostatu ahal izango dira:

HEZ KODEA	HONDAKINAK
20 01 08	Sukaldeetako eta jatetxeetako hondakin biodegradagarriak
20 02 01	Hondakin biodegradagarriak

8. artikulua.- Komunitateko konpostaje-prozesua kontrolatzea.

1.- Komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren titularrek bermatu egin beharko dute arrisku biologikoak era efikazean arintzen direla prozesua baldintza egokietan mantenduta. Prozesu horri

Artículo 5.- Ubicación de las instalaciones de compostaje comunitario.

Las instalaciones de compostaje comunitario deberán ubicarse de acuerdo con las normas que establezcan los ayuntamientos en los que se vayan a implantar, al objeto de evitar molestias a las personas y, en todo caso, respetando las zonas de dominio público y las servidumbres legalmente establecidas, así como cualesquiera otras limitaciones derivadas de otras normas que pudieran estar vigentes en cada momento.

Artículo 6.- Características de las instalaciones de compostaje comunitario.

1.- Las instalaciones de compostaje comunitario no podrán superar los 10 metros cúbicos de volumen disponible para el proceso de compostaje.

2.- A efectos de realizar el cómputo del volumen se contabilizarán todos los equipamientos que conformen la instalación, excluyendo los destinados a albergar el material estructurante y a almacenar el compost.

3.- En caso de la existencia de distintos sublotes, la instalación debe estar diseñada para que éstos no se mezclen entre sí.

Artículo 7.- Residuos admisibles en instalaciones de compostaje comunitario.

En las instalaciones de compostaje comunitario se podrán compostar únicamente los siguientes biorresiduos:

CÓDIGO LER	RESIDUOS
20 01 08	Residuos biodegradables de cocinas y restaurantes
20 02 01	Residuos biodegradables

Artículo 8.- Control del proceso de compostaje comunitario.

1.- Las personas titulares de las instalaciones y actividades de compostaje comunitario deberán garantizar una atenuación eficaz de los riesgos biológicos mediante el mantenimiento de unas



hurrengo apartatuan adierazten diren temperaturaren eta edukitze-denboraren kontrolak egin beharko zaizkio.

2.- Bermatu egin beharko da, gutxienez, heltze-prozesuan zehar 55oC izango direla elkarren segidako 14 egunetan. Edozein arrazoi dela eta, ez badira baldintza horiek betetzen, lortzen den produktua hondakin bezala kudeatu beharko da dagokion zerbitzu publikoaren bidez.

9. artikulua- Komunitateko konpostaje-instalazio eta jardueretako konpostaren organismo patogenoak kontrolatzea.

1.- Heltze-prozesua amaitzean, aurreko artikuluko baldintzak beteta, instalazio eta jardueraren titularrak bermatu beharko du lortutako konpost helduaren lote bakoitza kontrolatu egiten dela, lagin adierazgarri baten bidez, eta muga hauek betetzen direla bermatuko du:

- a) Salmonellarik ez izatea (produktuaren 25 g-tan).
- b) Escherichia coli < 1.000 kop. probableena produktuaren gramo bakoitzeko.

2.- Konpost helduaren lote bat hainbat azpilotek osatzen badute, horietako bakoitza banaka aztertu beharko da.

3.- Muga horiek gainditzen dituen konposta hondakin gisa kudeatu behar da dagokion zerbitzu publikoaren bidez.

10. artikulua- Komunitateko konpostaje-instalazio eta jardueretako titular eta teknikari arduradunaren betebeharrak.

1.- Instalazioen titularrak betebeharrak hauek izango ditu:

a) Ziurtatu beharko du jarduerak teknikari arduradun bat duela, hau da, Agindu honetako 8 eta 9. artikulua betetzeko ardura duen teknikaria. Teknikari horrek behar besteko sinesgarritasun teknikoa izango du ziurta dezan prozesua, hala instalazioak eta jarduerak nola lortutako konposta, ingurumena eta pertsonen osasuna babesten duten baldintzetan gauzatu dela.

condiciones adecuadas de proceso. Dicho proceso deberá someterse a los controles de temperatura y tiempos de permanencia señalados en el apartado siguiente.

2.- Se deberá garantizar, como mínimo, que durante el proceso de maduración se alcanzan los 55oC durante 14 días consecutivos. En el caso de que, por cualquier circunstancia, no se logre satisfacer estas condiciones, el producto resultante deberá ser gestionado como residuo a través del servicio público correspondiente.

Artículo 9.- Control de organismos patógenos del compost procedente de instalaciones y actividades de compostaje comunitario.

1.- Al finalizar el proceso de maduración, cumplidas las condiciones del artículo anterior, la persona titular de la instalación y actividad deberá asegurar que se realiza un control de cada lote de compost maduro obtenido, mediante muestra representativa, garantizando que se cumplen los siguientes límites:

- a) Salmonella ausente (en 25 g de producto).
- b) Escherichia coli < 1000 n° más probable por gramo de producto.

2.- En caso de que un lote de compost maduro esté compuesto por varios sublotes, no será necesario el análisis individualizado de cada uno de ellos.

3.- El compost que supere estos límites deberá ser gestionado como residuo a través del servicio público correspondiente.

Artículo 10.- Obligaciones del titular y del responsable técnico de las instalaciones y actividades de compostaje comunitario.

1.- El titular de las instalaciones debe cumplir las siguientes obligaciones:

a) Asegurar que la actividad cuenta con una persona responsable técnica que actúe como garante del cumplimiento de los artículos 8 y 9 de la presente Orden. Dicha persona deberá disponer de la solvencia técnica suficiente para asegurar que el proceso se lleva a cabo en condiciones tales que, tanto las instalaciones y actividades como el compost obtenido, garanticen la protección del medio ambiente y la salud de

las personas.

b) Jakinaraztea prozesuari edo produktuari eragin diezaioketen gertaerak instalazioa kokatuta dagoen udaleko arloko arduradunari.

b) Comunicar las incidencias acaecidas que pudieran afectar al proceso o al producto al área responsable del ayuntamiento en el que se ubique la instalación.

c) Ziurtatzea konposta Agindu honetan aurreikusitako erabiltzaile eta erabileretarako soilik banatzen dela, konpostaje-prozesua amaitzen denean eta Agindu honetako 8 eta 9. artikuluetan eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen denean.

c) Asegurar que el compost se reparte únicamente entre las personas usuarias y para los usos previstos en esta Orden, cuando el proceso de compostaje finalice y se compruebe que satisface las condiciones exigidas en los artículos 8 y 9 de la presente Orden.

d) Bermatzea hurrengo apartatuan aipatutako artxibo kronologikoak eskatutako informazioa duela eta udalaren esku egongo dela 3 urtean gutxienez.

d) Garantizar que el archivo cronológico mencionado en el siguiente apartado cuenta con la información requerida y esté a disposición del ayuntamiento durante al menos 3 años.

2.- Instalazio bakoitzaren teknikari arduradunak betebeharrak izango ditu:

2.- El responsable técnico de cada instalación debe cumplir las siguientes obligaciones:

a) Kontrolatzea konpostatuko biohondakinen tipologia, Agindu honetako 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

a) Controlar la tipología de los biorresiduos compostados, según lo dispuesto en el artículo 7 de la presente Orden.

b) Kontrolatzea konpostaje-prozesua, Agindu honetako 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Controlar el proceso de compostaje según lo dispuesto en el artículo 8 de la presente Orden.

c) Kontrolatzea agente patogenoak, Agindu honetako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Controlar los agentes patógenos según lo dispuesto en el artículo 9 de la presente Orden.

d) Komunitateko konpostaje-instalazioetan egindako jardueren artxibo kronologiko bat eramatea; bertan, informazioa hau adieraziko da:

d) Llevar un archivo cronológico de las actividades desarrolladas en las instalaciones de compostaje comunitario, en el que deberá constar la siguiente información:

- tenperatura eta edukitze-denboraren kontrol-emaitzak.
- organismo patogenoen kontrol-emaitzak.

- resultados del control de temperatura y tiempo de permanencia.
- resultados del control de organismos patógenos.

11. artikulua- Komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren erabiltzaileak.

Artículo 11.- Personas usuarias de las instalaciones y actividades de compostaje comunitario.

Komunitateko konpostaje-instalazioak eta jarduerak ezartzen diren tokietako udalak arduratuko dira erabiltzaileek prozesua era egokian eta, edonola ere, Agindu honetan ezarritakoaren arabera egin ahal izateko behar den prestakuntza edo gaitasuna izateaz.

Los ayuntamientos en los que se ubiquen las instalaciones y actividades de compostaje comunitario velarán porque las personas usuarias tengan la formación o la capacitación necesarias para poder realizar el proceso de manera adecuada y, en todo caso, de acuerdo con lo dispuesto en la presente Orden.



12. artikulua- Komunitateko konpostaje-instalazio eta jardueretako konposta biltegitratzea.

1.- Lortutako konposta komunitateko konpostaje-instalazioetan biltegitratu ahal izango da, heltze-prozesutik lortutako konpostaren ezaugarriak ez direla aldatzen ziurtatzeko eran.

2.- Instalazioaren titularrak komunitateko konpostaje-instalazioetatik kanpo biltegitratzea erabakitzen badu, biltegitratze hori instalazioaren titularraren erantzukizunpean egingo da, kontainerizatuta eta/edo ontziratuta eta toki estalian, heltze-prozesutik lortutako konpostaren ezaugarriak aldatzen ez direla eta konposta erabiltzaileak ez diren artean banatzen ez dela bermatzeko eran.

13. artikulua- Komunitateko konpostaje-instalazio eta jardueretako konposta erabiltzea.

1.- Lortutako konposta soilik instalazioetako erabiltzaileek erabiliko dute erabilera partikularrerako, ezingo dute bideratu elikagai-katearekin erlazionatutako erabileretarako, salbu eta araudiaren arabera ezarritako baldintzak betetzen badira.

2.- Udalek (titularrak diren instalazioetako konpostaren erabiltzaile gisa) instalazioetatik lortutako konposta erabili ahal izango dute, elikagai-katearekin erlazionatutako erabileretan izan ezik, salbu eta araudiaren arabera ezarritako baldintzak betetzen badira.

3.- Nolanahi ere, instalazioen titularrek ziurtatu beharko dute lortutako konposta era egokian erabiltzen dela, eta material horretaz baliatuko den erabilerak duen araudia betetzeko ardura izango dute.

14. artikulua- Komunitateko konpostaje-instalazioak erregistratzea.

1.- Udalek dagokien udal-mugartean dauden titulartasun publiko edo pribatuko komunitateko konpostaje-instalazioak eta jarduerak erregistratuko dituzte. Aipatutako erregistroan informazio hau jasoko da:

Artículo 12.- Almacenamiento del compost procedente de instalaciones y actividades de compostaje comunitario.

1.- El compost obtenido podrá ser almacenado en las propias instalaciones de compostaje comunitario de manera que se asegure la no alteración de las características del compost resultante del proceso de maduración.

2.- En caso de que el titular de la instalación decida almacenar compost fuera de las instalaciones de compostaje comunitario, dicho almacenamiento deberá realizarse siempre bajo la responsabilidad del titular de la instalación, contenerizado y/o envasado y en lugar cubierto, de manera que se asegure la no alteración de las características del compost resultante del proceso de maduración y la no distribución del mismo entre personas no usuarias.

Artículo 13.- Usos del compost procedente de instalaciones y actividades de compostaje comunitario.

1.- El compost resultante será utilizado exclusivamente por las personas usuarias de las instalaciones para su uso particular, sin destinarlo a usos relacionados con la cadena alimentaria, salvo que se cumpla con los requisitos reglamentariamente establecidos.

2.- Los ayuntamientos, como usuarios del compost procedente de las instalaciones de las que sean titulares, podrán utilizar el compost obtenido de éstas excluyendo usos relacionados con la cadena alimentaria, salvo que se cumpla con los requisitos reglamentariamente establecidos.

3.- En todo caso, las personas titulares de las instalaciones deberán asegurar un uso adecuado del compost obtenido, siendo responsables del cumplimiento de la normativa que regule el uso al que se destine el material.

Artículo 14.- Registro de instalaciones de compostaje comunitario.

1.- Los ayuntamientos deberán llevar un registro de las instalaciones y actividades de compostaje comunitario de titularidad pública o privada que se desarrollen en su término municipal. En dicho registro deberá constar la siguiente información:



- a) Instalazioaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoaren, publikoa izan edo pribatua izan, identitatea.
- b) Teknikari arduradunaren identitatea.
- c) Instalazioetako erabiltzaileen identitatea.
- d) Instalazioen kokapena.
- e) Instalazioen edukiera.

2.- Udalek neurri egokiak hartuko dituzte instalazioetako titularrek dagokien informazioa eguneratuta mantentzen dutela bermatzeko.

15. artikulua. Informazioa eskatzea udalei.

Estatistika ofizialak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ingurumen-organoak udalei informazioa eskatu ahal izango die beren udal-mugar-tean dauden komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren inguruan.

Xedapen gehigarri bakarra: Konpostajea ikastetxeetan.

Ikastetxeetan sortzen diren eta etxeetakoekin parekatu daitezkeen hondakinak konpostatu daitezke sortzen diren tokian. Halere, konpostaje-kasu zehatz honetan, baldintza hauek ezartzen dira:

- a) Hala prozesuak nola lortzen den konpostak betetzea Agindu honetako 8 eta 9. artikuluetan aipatutako prozesu-baldintzak eta organismo patogenoen kontrola.
- b) Lortzen den konposta eksklusiboki erabiltzea ikastetxean bertan, eta alde batera uztea elikagai-katearekin erlazionatutako erabilerak, eta konposta banatzea debekatu egongo da.

Xedapen iragankor bakarra: Lehendik dauden instalazioak egokitzea.

Agindu hau indarrean jartzen denetik 2 urteko gehieneko epean, lehendik dauden komunitateko konpostaje-instalazioak eta -jarduerak Agindu honetan aurreikusitakora egokitu beharko dira.

- a) Identidad de la persona física o jurídica, pública o privada, titular de la instalación.
- b) Identidad de la persona que actúe como responsable técnica.
- c) Identidad de las personas usuarias de las instalaciones.
- d) Ubicación de las instalaciones.
- e) Capacidad de las instalaciones.

2.- Los ayuntamientos adoptarán las medidas oportunas para garantizar que las personas titulares de las instalaciones mantienen actualizada la información correspondiente.

Artículo 15.- Solicitud de información a los ayuntamientos.

Para elaborar las estadísticas oficiales, el órgano ambiental de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá solicitar información a los ayuntamientos sobre las instalaciones y actividades de compostaje comunitario existentes en su término municipal.

Disposición Adicional única: Compostaje en centros educativos.

Los residuos asimilables a los domésticos generados en centros educativos pueden ser compostados en el lugar en el que se producen. Sin embargo, en este caso específico de compostaje, se establecen las siguientes condiciones:

- a) Que tanto el proceso como el compost resultante cumplan las condiciones de proceso y el control de organismos patógenos referidos en los artículos 8 y 9 de la presente Orden.
- b) Que el compost resultante sea utilizado exclusivamente para su uso en el propio centro educativo, excluyéndose usos relacionados con la cadena alimentaria, y quedando prohibida su distribución.

Disposición transitoria única: Adaptación de las instalaciones existentes.

En un plazo máximo de 2 años a partir de la entrada en vigor de la presente Orden las instalaciones y actividades de compostaje comunitario existentes deberán adaptarse a lo previsto en la presente Orden.

Amaierako xedapena: Indarrean jartzea. **Disposición final: Entrada en vigor.**

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.